

Industrializazioa, migrazio mugimenduak eta gizarte aldaketak

Bilboko itsasadarra (1840-1935)

Egilea: Ander Plaza Chopitea

Tutorea: Jose María Beascoechea Gangoiti

Historia Garaikideko Saila

Vitoria-Gasteizen, 2016ko ekainaren 2an

LABURPENA

1876. urtetik aurrera, Bilboko itsasadarrak industrializazio prozesu azkarra bizi izan zuten. Bertako baldintza egokiek, hala nola, erauzteko erraza zen burdin minerala izateak, kostaldeko kokapenak, portu egokiak izateak, ikatza merke lortzeko aukerak edo komunikabide sare egokia izateak, hasieran mearen ustiapenari lotutako industria sortzea ekarri zuten. Honek era berean, burdingintza enpresak eratzeko aukerak eskaini zituen, eta hauen inguruan metalgintza eta ontzigintza enpresak sortu ziren. Itsasadarra Kantauri aldeko metropoli gune nagusia bihurtzeko oinarriak ezarri ziren horrela.

Industria hauen ezarpenak milaka langile erakarriko ditu, 1840tik aurrera hainbat immigrazio olatu eraginez. Gehienak inguruko probintzietatik edo Bizkaitik bertatik heldu ziren. Immigrazio hau izan zen hein handi batean zonaldean izandako demografia hazkundearen arrazoi nagusia, XIX. mende bukaerarako itsasadarreko biztanle erdiak kanpotarrak baitziren.

Etorritako gehienak 20-35 urte bitarteko gazteak izan ziren, oro har, bertakoek baino alfabetatze maila handiagoa zutenak, eta hauexek ase zituzten industriak sortutako lanpostu berriak. Bestelako sektoreetan arituko den populazioa oso txikia izango da, eta oro har, bertakoak. Etorrinek garapenaren eta lan merkatuaren arabera aukeratu zituzten jomugako herriak, itsasadarrak unitate bat osatzen zuten arren, bost azpi-zonalde bereizi behar baitira barnean: Meatzaldea, itsasadarraren erdialdeko gunea, itsasadarraren bokalea, itsasadarraren amaiera eta Bilbo hiriburua.

Immigranteen artean emakumeek kopuru handia suposatu zuten, nahiz eta ezarri zen merkatua gizonezkoen bideratuta egon. Emakume askok familian emigratu zuten, gizonek industrian lan egiten zuten bitartean etxeko lanez arduratzeko edo aldi bateko lanen bidez soldata osagarri bat eskuratzeko. Izan ere, familia emigrazioa handia izan zen, batik bat bi edo lau kidez osatutako familia nuklearrena, nahiz eta finkatu ostean hazteko joera izaten zuten. Beste emakume askok neskame moduan emigratu zuten aberatsen etxeetara.

Beraz, 1840. eta 1935. urteen artean izandako prozesuak, ordura arte lehen sektorean oinarritutako gizarte tradizionalen aldaketa handiak ekarri zituen: lan-egituraren aldaketa, populazioaren hazkundera, immigrazioa, hiritartzea, proletarizazioa, bizi baldintzen aldaketa eta abar. XX. mendeko Bizkaiko historia erabat baldintzatuko duen gizarte berri bat sortuko da horrela.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. INDUSTRIALIZAZIOA (XIX. ETA XX. MENDEAK)	6
2.1. INDUSTRIALIZAZIO AURREKO EGOERA (XVIII. MENDEA)	6
2.2. INDUSTRIALIZAZIOAREN ABIATZEA (1840-1876).....	6
2.3. INDUSTRIALIZAZIOAREN AZKARTZEA (1876. URTETIK AURRERA)	8
3. IMMIGRAZIOA	10
3.1. MIGRAZIO OLATUAK	12
3.2. ETORKINEN JATORRIA	13
3.3. ETORKINEN EZAUGARRIAK	14
3.3.1. <i>Etorkinen adina</i>	15
3.3.2. <i>Etorkinen egoera zibila eta familia motak</i>	15
3.3.3. <i>Lan-egitura</i>	16
3.3.4. <i>Etorkinen hezkuntza eta alfabetatzea</i>	19
3.4. ETORKINEN JOMUGA NAGUSIAK	20
4. GIZARTE ALDAKETAK	23
5. ONDORIOAK	25
6. BIBLIOGRAFIA	29

1. SARRERA

XIX. eta XX. mendeko gizarte aldaketak aztertzea izan da Gradu amaierako lan (GRAL) bezala aukeratutako gaia. Epealdi honetan hainbat prozesu jarri ziren martxan mundu mailan, eta funtsezko aldaketen artean, hurrengo hamarkadak baldintzatuko dituen gizarte berri baten sorrera izango dugu. Hala ere, bere barnean arlo asko hartzen dituen gai oso zabala izanik, hasieratik mugatu beharra ikusi genuen. Hori dela eta, Bilboko itsasadarrean izandako industrializazio prozesua eta honek gizartean izandako eraginak aztertzea erabaki genuen. Izan ere, industrializazioa prozesu konplexua da, eta ez da ekonomiara bakarrik mugatzen. Industrializazio prozesua gizarte prozesu ere bada, eta eragin ukaezina sortzen du gizarte egituran, hainbat aldaketa eraginez.

XVIII. mendearen bigarren erdian jarri zen martxan industria iraultza Ingalaterran, hamarkada batzuk geroago Mendebaldeko Europa osora, eta Euskal Herrira ere hedatuz. Prozesu honen ondorioz, Neolito garaitik gizakiaren historian izandako eraldaketa ekonomiko, teknologiko eta sozial garrantzitsuenak gertatu ziren. Nekazaritzan oinarritutako ekonomia batetik, hiritar izaerako ekonomia industrial eta mekanizatu batera igaro baitzen.

Industrializazioak inflexio puntu bat suposatu zuen historian, eguneroko bizitzako esparru guztietan, modu batean edo bestean, aldaketak eragin baitzituen. Nekazaritzaren eta sortu berri zen industriaren produkzioa izugarri igo zen, eta aberastasuna eta *per capita* errenta ordura arte ezagutu gabeko mailetara heldu zen, mendeetan egonkor mantendu ostean. Historian lehen aldiz masen bizi mailak hazkunde iraunkor bat bizi izan zuen, eta ekonomia industrialera igarotzeak gizarte aldaketa handiak ekarri zituen. Adibidez, demografia hazkundera, migrazio mugimenduak, hiritartzea edo gizarte klase berrien sorrera. Bi klase nagusi sortu ziren, euren lan indarra saltzea beste erremediorik ez zuen gehiengo langilea, eta produkzio bitartekoen jabe zen gutxiengo kapitalista. Banaketa berri hau lan gatazka askoren pizgailu izan zen, baita ideologia berrien sorburua ere. Besteak beste, sindikalismoa, sozialismoa, anarkismoa edo komunismoa.

Euskal Herrian, Bilboko itsasadarra izan zen prozesu hori bizi izan zuen lehen zonaldea, eta horrek gizarte tradizionala mantendu zen beste zonalde batzuen aurrean, gune dinamiko eta eraberritzailea bihurtu zuen. Baina, itsasadarrean izandako prozesu zabal horren barruan, esan bezala, batez ere demografia hazkundera, eta bereziki

immigrazioan zentratu gara gu. Hortaz, lanaren helburu nagusia immigrazio prozesua eta honek gizarte berriaren eraketan izandako eragina aztertzea da. Ikusiko dugun moduan, etorkin hauek ase baitzuten industria berriaren lan-esku eskaera. Ezinezkoa izango da XX. mendeko Bizkaiko gizartea ulertzea faktore hau kontuan izan gabe.

Ildo horretatik, lana lau ataletan banatu dugu. Lehenengo atalean industrializazio prozesua nola gauzatu zen aztertu dugu. Aurrekari batzuk aipatu ostean, 1840-1876 epealdian industriak izandako lehen abiada, eta 1876. urtetik aurrera izandako azkartzea izan ditugu hizpide. Industria eremu honetan finkatu izanaren arrazoiak zeintzuk diren ikusiz, eta immigrazioaren oinarrian dauden faktoreak ulertuz.

Bigarren atalean, industria berrien finkatzeak sortutako lan-esku eskariak erakarritako immigrazioa aztertu dugu. Bilboko itsasadarrean finkatu ziren immigranteen nolakotasuna deskribatu dugu lagin bezala bi garai erabilia. Hots, 1880-1890 eta 1920-1935 urte tartek. Lehena, migrazio olatuen hasiera eta aitzindari izan ziren immigranteen garaia da, eta bigarrena, mende erdi baino gehiago iraun zuen prozesuaren amaiera aldia. Bi garai hauek hartzen duten tarte honetan garatu zen industria, eta eratu zen gizarte berria.

Kapitulu hau da lanaren muina, eta esan behar da, batez ere Gonzalez Portilla eta Garcia Abaden lanak erabili ditugula hau osatzeko. Immigrazioaren gaineko datu orokor batzuk eman ondoren, migrazio olatuak, emigranteen jatorria, adina, egoera zibila, familia mota, lan-egitura, jomugak edo alfabetatze maila aztertu ditugu. Beti ere, sortuko zen gizarte berria hobeto ulertzeko ondorioak ateratze aldera.

Hirugarren atalean, nahiz eta gainetik izan, industrializazio prozesuak beste hainbat alderditan izandako gizarte aldaketak aztertu ditugu. Hala nola, biztanleriaren bizi mailan, aberastasunaren banaketan, klaseen eraketan, kulturen eta abar. Lanarekin amaitzeko, aurreko ataletan ateratako ondorio nagusien laburpena egin dugu.

2. INDUSTRIALIZAZIOA (XIX. ETA XX. MENDEAK)

2.1. INDUSTRIALIZAZIO AURREKO EGOERA (XVIII. MENDEA)

Industrializazioa gertatu aurretik, Bizkaiko ekonomiaren oinarria biziraupen nekazaritza zen, baina protoindustria ugari zeuden zonalde honetan. Horien artean nabarmenenak burdinolak ziren, eta lantegi horien produktuaren eskaririk gehiena ontziolak egiten zuten. XVI. mendetik XVIII. mendera bitartean garapen handia izan zuten. Protoindustria horiek industria kapitalistaren hainbat ezaugarri zituzten, soldatak edo lan banaketa esaterako; baina tamaina txikiko lantegiak izan ziren, eta gaitasun urria eduki zuten¹.

XVIII. mende hasieran, Europako burdina Espainian sartzea galarazi zen, horrela Europako lehiakideei aurre egiteko aukera izan zuen Bizkaiko burdingintzak, babestutako merkatu bat lortuz. Horren eraginez, XVIII. mendearen lehenengo erdialdean ekonomiak egoera ona bizi izan zuen. Landa ekonomia, industria jarduera eta merkataritza batzeak populazioaren hazkunderari bultzada eman zion.

Hori guztia, ordea, ahultzen hasi zen XVIII. mendearen erdialdean. Batetik, teknika berriak instalatzeko diru inbertsio itzelak behar ziren. Bestetik, Espainiako koroak kalte izugarria egin zien burdinolei, 1779. urtean, gobernuak muga zerga ezarri zien euskal probintzietatik Gaztelara sartzen ziren euskal produktuei. Horrez gain, Bilbori kolonietan salerosketak egiteko baimena ukatu zion. Are larriagotu zuten egoera aldi horretako gerrek. Ildo honetatik, euskal industria tradizional honek bizi izandako krisi sakonak bere desagerpena ekarriko zuen². 1840. urtean, industria berria hasi zen sortzen, merkatu berriari begira eta herri industrialetatik inportatutako teknologia zuena.

2.2. INDUSTRIALIZAZIOAREN ABIATZEA (1840-1876)

1842tik 1870era bitartean hazkundera gertatu zen industria alorrean. Garai hartan, abian jarri ziren gero industria gune garrantzitsuenak sortuko zituzten industriak. Bizkaian, Ezkerraldeko burdingintza gunea zen esanguratsuen.

¹ Uriarte, R. "Gestión y cambio técnico en una empresa siderúrgica tradicional: la ferrería El Pobal (XVI-XX)", *RIEV*, 54.2, (2009): 421 orr.

² Uriarte, R. "Gestión y cambio..." op cit.: 438 orr.

Hainbat baldintzak ahalbidetu zuten hedatze hori. 1841ean, lehen gerra karlista bukatu ondoren, gobernuak aduanak kostaldera lekualdatuta euskal lurraldeak Espainiako merkatu nazionalean sartu ziren. Era horretan, kanpotik babestuta zegoen merkatuan hasi zen lehiatzen eta Bizkaian industria kokatzea errentagarria bihurtu zen. Izan ere, Espainiako merkatuak, behin neurri protekzionistak hartuta, aukera itxaropentsuak eskaintzen zituen, 15 milioi biztanle izanda, Europako merkatu boteretsuenetako bat baitzen³.

Merkatu nazional horren barruan, Bizkaiak bazituen hainbat abantaila. Nabarmentzekoa da, esate baterako, ur baliabideak, industria prozesu gehienetan beharrezkoa eta leku askotan urria dena. Bestalde, kokapen estrategiako zuen Gaztela eta industrializatuta zegoen Europa lotzen baitzituen. Kostaldean egotea eta portuak izatea ere garrantzi handiko faktorea izan zen, itsasoko garraioa baitzen merkeena.

Faktore natural horiez gain, euskal lurraldeetako administrazio erregimena aipatu behar dugu, abantailak eskaintzen baitzituen industriaren kokapenerako. Besteak beste, autonomia fiskala. Foru erregimenak jakin zuen, baliabide publikoak eraginkortasunez erabiltzen. Errepideen hornidura, edo hezkuntza publiko, osasun eta ongizate sistemen funtzionamendua Estatuko beste lurralde gehienetakoak baino hobekak ziren⁴.

Azkenik, beharrezkoa da gogora ekartzea, arestian aipatu dugun industria tradizionalak industrializazio modernoan izan zuen eragina. Industria modernoa, antzinako industria horiek erabili zituzten azpiegiturez baliatu ziren ekoizpen berria abian jartzeko.

Bizkaian, 1840. eta 1876. urteen artean sortu zen industriek soilik barne merkaturako produzitzen zuen, tamaina eta ekoizpen txikia zuten, eta teknologia atzerapen handia. Labe garaiak instalatu zituzten arren, egur-ikatzak erabiltzen zuten oraindik, oso erregai garestia. Europan, berriz, harrikatzez funtzionatzen zuten labeak erabiltzen ziren aspalditik. Hori dela eta, enpresa hauen metaketa gaitasuna ez zen handia. Eskaria ere handia ez zenez, lantegi handiak eraikitzea arriskutsua zen. Gainera, teknologia aurreratuen eskuratzeko gaitasuna bakarrik lantegi handien produkzioak

³ Gonzalez Portilla, M. (Ed.). *Los orígenes de una metrópoli industrial: la ría de Bilbao. Volumen I. Modernización y mestizaje de la ciudad industrial*. Bilbao: Fundación BBVA, 2001: 46 orr.

⁴ Gonzalez Portilla, M. (Ed.). *Bilbao en la formación del País Vasco Contemporáneo: economía, población y ciudad*. Bilbao: Fundación BBVA, 1995: 26-27 orr.

berma zezakeen, egin beharreko inbertsioak oso handiak izaten baitziren. 1860. urteko erdialdean guztira mota honetako ehun eta berrogeita hamar fabrika inguru zeuden⁵.

2.3. INDUSTRIALIZAZIOAREN AZKARTZEA (1876. URTETIK AURRERA)

Hala ere, 1876. urtearen ondoren, azken gerra karlistaren ondoren, teknologia aurreratuko industria handia sortzeko aukera gertatu zen Bizkaian. Industria handi honen oinarriak burdin minerala erruz izatea, eta nazioartera begira produzitzea izan ziren. Horri gehitu behar dizkiogu probintziako meategiak liberalizatzea eta Bessemer izeneko altzairu bihurtzailua asmatzea.

Meatzeei buruzko legeek meategiak herri ustiapenekoak izateko eskubidea deuseztatu zuten, jabegoaren eskubide indibidualak indartuz eta negozio handiei bidea irekiz. Horrez gain, 1860. urtean asmatutako Bessemer sistemak altzairu merkea erraz lortzea ekarri zuen. Sistema honek mineral ez fosforikoak behar zituen, eta horiek oro har nahiko eskasak izan arren, Bizkaiko meategietan erruz zeuden. Gainera, hauek erauztea erraza zen eta burdin eduki handia zeukan. Eta hori guztia kokapen ezin egokiagoa zuten meategietan, kostaldetik eta Bilboko portutik oso gertu, batik bat, Somorrostro eta Triano aldean. Gainera, azpiegiturak hobetu ziren XIX. mendeko erdialdetik aurrera trenbidearen eraikuntzarekin. Bizkaiko industrializazioari modu positiboan eragingo dioten bi linea izango ditugu⁶.

Horrek guztiak minerala erauzteko kostuak txikiak izatea eta Europako industrigune garrantzitsuekin salneurrietan lehiatzea ahalbidetu zuen. Alderdi horiek guztiek Europatik burdin eskaria areagotzea ekarri zuten, eta esportazioek gora egin zuten. 1873tik aurrera mineralaren erauzketarako lehen enpresa handiak sortuko dira, kanpo kapitalez nahiz bertokoez. Era berean, tokiko kapitalak inbertituz, enpresa txiki ugari sortu ziren, enpresa handien inguruan lan egiteko.

Mineralaren ekoizpenaren garapena Basauri eta Kantabriako mugaren arteko eremuan kokatu zen. 1866. urtetik 1870. urtera 867.000 tona ekoiztu ziren, eta hamabost urte geroago ekoizpena 17.265.000 tonakoa zen, eta etengabe igotzen jarraitu zuen 1910. urtera arte⁷. Produkzio horren %90 inguru esportatu egiten zen, gehiena Ingalaterrara. Komertzio sare horrek handik ikatz merkea inportatzeko aukera ekarri

⁵ Gonzalez Portilla, M. (Ed.). *Los orígenes...* op cit.: 47 orr.

⁶ Gonzalez Portilla, M. (Ed.). *Los orígenes...* op cit.: 49 orr.

⁷ Barcenilla, M. A.. *Industrializazioa Euskal Herrian*. Donostia: Gaiak, 2002: 103 orr.

zuen, ordura arte erabiltzen zen Asturiasko ikatza baina dezente merkeagoa. Horrela, Bilboko itsasadarrak batetik, kostaldetik hurbil zegoen mineral aberatsa, eta bestetik, ikatz merkea lortzeko erraztasuna biltzen zituen. Horrek burdingintza kokatzeko esparru ezin hobea bilakatu zuen zonalde hori. Orduan, kapitalak iristen hasi ziren, nazioarteko merkatuan lehiakorrak izateko tamaina egokia izango zuten lantegiak eraikitzeke asmoz.

1882. urtean Barakaldoko *Altos Hornos de Bilbao* enpresa sortu zuen *Ybarra Hermanos y Cia.* sozietateak. Enpresa berriak garai hartako teknologia aurreratuen instalatu zuen eta 100.000 tona totxokoa zuen produkzio gaitasuna urteko⁸. Hortik aurrera hainbat burdingintza enpresa sortuko dira, horien artean esanguratsuenak *La Vizcaya* (1902an aurrekoarekin batuz *Altos Hornos de Vizcaya* sortuko duena, 5.000 langile ingururekin) eta Sestaoko *San Francisco*. Bizkaiko burdingintzak nazioarteko ekonomian txertatzeko eta esportaziorako gaitasuna lortu zuen. Horrela, berrikuntza teknologikoan parte hartzeko eta kostu lehiakorrez produzitzeko beharrezkoak ziren inbertsioak eta produkzio kopuruak lortu zituen.

Hala ere, 1891. urteaz geroztik, Europako zenbait herrik, euren industriak babesteko asmoz neurri protekzionistak ezarri zituzten. Orduan, Bizkaiko burdingintza Espainiako merkatuari begira jarri zen. Lehiakorra zen benetan merkatu horretan eta, horri esker, ia monopolioa ezarri zuen. Prozesu honetan, gutxika, XX. mendean Bilboko burgesia handia osatuko duten familiak sortzen hasiko dira, batzuk negoziara etorri berriak, eta beste batzuk lehenagotik enpresa munduan ibilbidea zeukatenak⁹.

Bestalde, milaka langile zituzten burdingintza enpresa handi horien inguruan metalgintza enpresa asko sortu ziren. Enpresa horiek ehun langile baino gehiago zeuzkaten, eta bereziki burdina eta altzairua erabiltzen zituzten. Horien artean, ontziolak nabarmendu behar dira. Esaterako, Bilboko *Compañía Euskalduna* (1900) edo Sestaoko *Sociedad Española de Construcción Naval* (1916)¹⁰. Baina horrez gain, meatzaritzaren eta industriaren hedapen honek Bizkaiko ekonomia osoaren garapena ekarri zuen, eta merkataritza, garraio eta banka alorretan ere eragina izan zuen. 1855ean sortuko da,

⁸ Barcenilla, M. A.. *Industrializazioa...* op cit.: 104 orr.

⁹ Diaz, P. "La evolución de la oligarquía vizcaína, 1872-1936", *Ekonomiaz: revista vasca de economía*, 54 (2003): 14 orr.

¹⁰ Valdaliso, J. M. "Nacimiento y desarrollo de la industria de construcción de buques de hierro y acero en el País Vasco: el caso de Vizcaya (1889-1979)" *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 2, (1998): 310-311 orr.

adibidez, *Banco Bilbao*. Prozesu industrial honen finantziazioa aurreko aldian pilatutako merkatal kapitalarekin burutu zen, batez ere, merkataritzari, artisautzari, protoindustriari, landa jabetzei eta Ameriketara egindako kapitalei lotutako talde sozialen eskutik¹¹.

3. IMMIGRAZIOA

Industrializazio prozesuak eragindako gizarte aldaketen artean, zonaldeko herrietan izandako demografia hazkundera nabarmendu behar dugu (ikusi 1. taula). Baina fenomeno honetan, ezberrik gabe, faktore garrantzitsuena immigrazioa izan zen. Industria iraultzaren eta hazkunde ekonomikoaren ondorioz, itsasadarra aldameneko lurraldeetako biztanleentzako leku erakargarria bihurtu zen, eta hauen immigrazioak bertako demografia hazkunderaren %70 suposatu zuen. 1870. urtetik aurrera esanguratsua bihurtu zen immigrazioa, eta XIX. mende bukaerarako itsasadarreko biztanleriaren erdia baino gehiago kanpotarra zen. Giza kapital honek aseko zuen aurreko atalean ikusi dugun industriaren lan-esku gosea.

Atal honetan, XIX. mende bukaerako industrializazioaren harira, Bilboko itsasadarrean izandako migrazio prozesuaren ezaugarri nagusiak eta nolakotasuna azaltzen saiatuko gara. Horretarako, lehenik eta behin, 1877 eta 1935. urteen artean izandako olatu ezberdinak eta etorritakoen jatorria aztertuko ditugu. Ondoren, lagin bezala 1880-1890 eta 1920-1935 urte tartetako datuak erabiliko ditugu¹². Bi epealdi hauek gakoak dira itsasadarreko etorkinen nolakotasuna ulertzeko, aukeratu dugun lehen epealdia aitzindariak izango diren etorkinen garaia izango baita, eta bigarren epealdia, berriz, migrazio prozesua ondo finkatuta egongo den aldia. Modu honetan, immigranteen ezaugarriak aipatuko ditugu, besteak beste, hauen adina, sexua, egoera zibila, lanbidea edota formazio maila. Ezaugarri hauek guztiek sortuko den gizarte berriaren gaineko zantzuak emango baitizkigute. Izan ere, industrializazioaren, immigrazioaren eta biztanleria hazkunderaren ondorioz, gizarte berri bat sortuko da, Bizkaiko gizarte tradizional, nekazari, kontserbadore, elizkoi eta euskaldunarekin hautsiko duena¹³. Amaitzeko, etorkinak garai jakin bakoitzean, itsasadarreko zein

¹¹ Gonzalez Portilla, M. (Ed.). *Los orígenes...* op cit.: 48 orr.

¹² Garcia Abad, R. *Historia de emigración: factores de expulsión y selección de capital humano en la emigración a la Ría de Bilbao (1877-1935)*. Bilbao: EHU-UPV, 2005: 150 orr.

¹³ Castells, L. *El rumor de lo cotidiano: estudios sobre el País Vasco contemporáneo*. Leioa: EHU-UPV, 1999: 22 orr.

zonaldeetan kokatu ziren ikusiko dugu. Baina datu zehatzekin sartu aurretik, komeni da datu orokor batzuk ematea.

1. TAULA: BIZTANLERIAREN BILAKAERA. BILBOKO ITSASADARREKO HERRIAK (1857-1930)

Herria	1857	1860	1877	1887	1900	1910	1920	1930
Barakaldo	2.369	2.688	4.710	8.868	15.013	19.429	26.906	34.209
Sestao	384	341	1.077	4.374	10.833	11.820	15.579	18.335
Erandio	1.628	1.678	1.813	2.931	6.385	6.881	10.045	11.268
Leioa	600	643	781	943	1.846	2.347	3.249	5.096
<i>Guztira</i>	4.981	5.350	8.381	17.116	34.077	40.477	55.779	68.908

Iturria: Gonzalez Portilla, M. (Ed.). *Los orígenes de una metrópoli industrial: la ría de Bilbao. Volumen I. Modernización y mestizaje de la ciudad industrial*. Bilbao: Fundación BBVA, 2001: 139 orr.

Euskal Herria kanpora emigratzeko tradizioa izan duen herrialdea izan da XIX. mendearen erdira arte. Bertako lurak ez ziren oso aberatsak nekazaritza edota abeltzaintzarako, eta ondorioz, mendeetan zehar euskaldunek Gaztelara, Parisera edota, geroago, Ameriketara emigratu zuten. Baina urte gutxitan joera hau aldatu egin zen. XVIII. mendean Bilboko itsasadarreranzko migrazio korronte bat azalduko da, eta XIX. mendearen azken laurdenean, industriaren garapenarekin eta milaka lanpostu berriren sorrerarekin, zonalde horrek milaka immigrante hartuko ditu. 1860. urtean Bizkaian 168.705 biztanle bizi baldin baziren, 1900erako 311.361 ziren, eta 1930erako 485.205¹⁴.

Hau da, industria gizarte berria sortu zen garaian, urteroko hazkunde tasak %2a gaindituko du. Baina gehien hasi zena, argi eta garbi, Bilboko itsasadarra izan zen. Izan ere, 1860an itsasadarrean Bizkaiko biztanle guztien %26 bizi baziren, 1900ean %52 ziren jada, eta 1930ean %61¹⁵. Aldaketa demografiko honen eta azaldu berri dugun industria garapenaren arteko lotura argia da. Lan-esku eskari handia sortu zen meatzaritzarekin eta lehen fabrika handiekin. Itsasadarrak hedapenaldi ekonomiko eta politikoa bizi izan zuen, hirurogeita hamarretako meatzaritzaren goren aldiarekin, laurogeietako burdingintza industriaren finkatzearekin eta hurrengo hamarkadetako dibertsifikazio industrialarekin (kimika, elektrizitatea, metalgintza, ontzigintza)¹⁶.

¹⁴ Castells, Miguel. *El rumor...* op cit.: 15 orr.

¹⁵ Gonzalez Portilla, M. (Ed.). *Bilbao en la formación...* op cit: 25 orr.

¹⁶ Gonzalez Portilla, M. (Ed.). *Los orígenes...* op cit.: 111 orr.

Esan dugun moduan, 1880 eta 1935. urteen artean immigrante horiek jatorrizko biztanleak baino ehuneko handiagoa bihurtu ziren. XIX. mende bukaeran %57, 18 izatera helduko dira eta 1920-1935. urteen artean %52,75¹⁷. Immigrazio bortitz honek gizarte egitura aldatu zuen, bai jendearen etorreragatik, baina baita hauen ezaugarriengatik ere.

3.1. MIGRAZIO OLATUAK

Immigranteen etorrerak, ziklo ekonomikoekin lotura estua duten olatu ezberdinetan banatu ziren. 1850. urtetik aurrera lehen migrazio-mugimenduak nabarituko diren arren, lehen olatu handia 1877. eta 1890. urteen artean izango da, burdingintzako industria handiak martxan ipintzean. Bigarren olatua, berriz, 1891. eta 1900. urteen artean izan zen, itsasadarreko industria egitura finkatzean. 1905. eta 1910. urteetan izan zen hirugarren olatua, eta ordutik migrazio korranteak goraka jarraitu zuen, 1915-1920 artean, industria sektorearen dibertsifikazioarekin eta gizarte berriaren eraketarekin batera, goia jo arte.

Lehen olatuko etorkinak modu masiboan helduko dira meatzaritza gunetara (Trapaga, Abanto-Zierbena, Ortuella, Galdames), eta aldi baterako jardungo dute lanean, uzta jasotzeko sasoiari, berriz ere euren jaioterrira bueltatuko baitira. 1880. urtetik aurrera, industria gune nagusiak garatzearekin batera, itsasadarraren erdialdea (Barakaldo eta Sestao) bihurtuko da jomuga nagusia, eta jada, immigranteak behin betiko finkatuko dira. Geroago, industriak hedatu ahala, ibai-ahoaren inguruko herrietan (Portugalete, Santurtzi, Getxo, Erandio, Leioa) eta barnealdean (Basauri, Bilbo) kokatzen joango dira¹⁸. Garapen honekin, Bilboko itsasadarra estatu mailan demografikoki eta ekonomikoki dinamikoenetakoa izango den zonaldetako bat bihurtuko da. Espainiako iparraldeko metropoli gune nagusia izango da, eta euskal probintziez gain, Asturias, Errioxa, eta Gaztela iparraldearen erreferentzia gunea bihurtu zen¹⁹.

¹⁷ Garcia Abad, R. *Historia de emigración...* op cit.: 150 orr.

¹⁸ Garcia Abad, R. *Historia de emigración...* op cit.: 153-154 orr.

¹⁹ Gonzalez Portilla, M. (Ed.). *Los orígenes...* op cit.: 163 orr.

3.2. ETORKINEN JATORRIA

Etorkinen jatorriari dagokionez, esan behar dugu, hasieran Bilbotik hurbilen zeuden eskualdeetatik heldu zirela langileak, eta denborarekin hasiko direla Espainiako probintzietatik eta beste estatu batzuetatik heltzen. XIX. mende amaieran, %42,8 50 km baino gertuago zeuden eskualdeetatik iritsi ziren, %19 50-100 km-ra zeudenetatik, eta %38, berriz, 100 km baino urrunagotik. 1920-1935 urteen artean, berriz, nahiz eta 50 km baino hurbilagokoak nagusi izaten jarraitu %45,6arekin, 100 km baino urrunagokoen ehunekoa 40,3ra igo zen, eta are gehiago, 200 km baino haratagotik heldutakoak %22,4 izan ziren²⁰.

Datuok adierazten duten bezala, Bilboko itsasadarrak gutxika eskualde ezberdinetako emigranteak jaso zituen. Hasieran, 1850etik aurrera, gehienak bizkaitarrak izan ziren. Hurbilen bizi zirenak izateaz gain, industria tradizionalak herrialdean izandako errotzeari esker lanbidea ezagutzen zutelako. Bizkaitarren etorrera beti mantenduko da nagusi, etorkin kopuru gehien emango dituen probintzia izango delarik. Bizkaiak, hain zuzen, bere biztanleen %36a igorri zuen itsasadarrera. 1860tik aurrera gipuzkoarrak hasiko dira heltzen, baina hauen kopurua oso murrizta izango da beti. Hurrengo hamarkadan, 1870-1875 urteen inguruan, Araba eta Burgoekoak agertuko dira, eta apur bat geroago Espainiako beste probintzietakoak eta estatuz kanpokoak. Beraz, 1875. urterako presente zeuden gerora izango ditugun probintzia guztietako etorkinak, nahiz eta erritmo eta kopuruak aldatuz joango diren.

Lagin bezala darabiltzagun bi urte tarteei erreparatuz gero, ikus dezakegu, 1880-1890 urteen artean immigranteen %70 Bizkaitik hurbilen dauden bost probintzietatik helduak zirela. Hau da, Bizkaia bertatik, Burgostik, Kantabriatik, Gipuzkoatik eta Arabatik. 1920-1935 urteen artean, berriz, %62,5a zen bost probintzia hauetakoa, eta Valladolid, Soria, Errioxa edo Asturiasko etorkinen kopuruak gora egin zuen. Bizkaiko beste eskualdeetatik heldutakoak %36 izan ziren, eta honen atzetik Burgos nabarmenduko da %14arekin. Izan ere, burgostarrentzat norako tradizionala zen Bilbo, bertatik irteten baitziren Gaztelatik zetozen merkantziak itsasoz haraindiko herrialdeetara. Tradizionalki artilea eta garia garraiatzeko erabilitako ibilbide hori, XIX. mendearen azken herenean emigrante olatuen bide bihurtu zen. Hori dela eta, Bizkaia

²⁰ Garcia Abad, R. *Historia de emigración...* op cit.: 156 orr.

eta Burgosko probintziek itsasadarrak jaso zituen etorkin guztien %50 inguru suposatu zuten²¹.

Araba izan zen kopuruz hirugarren postuan egon zen probintzia. Bertatik heldu ziren, 1880-1890 urteen artean etorritakoen %8a. Tarte honetan, hurrengo probintzia Kantabria izan zen %6arekin, eta bosgarrena Asturias %5arekin. Baina 1920-1935 urteen artean, berriz, Valladolidek aurrea hartu zuen hirugarren postuan kokatuz. Sei probintzia hauen artean osatu zuten immigrante guztien %65-70. Gainerakoak urrunago zeuden probintzietatik heldu ziren, hala nola, Lugo, Madril, Palentzia, Zamora edota Coruñatik. Izan ere, hurbilago egon arren, Gipuzkoak eta Nafarroak, ez zuten emigrante kopuru handirik eskaini, denborarekin hauetan ere industriak nolabaiteko garapen izan baitzuen.

3.3. ETORKINEN EZAUGARRIAK

Arestian aipatu bezala, lehen olatuko etorkinak burdin meategiei lotutako lanpostuek erakarrita heldu ziren. Gehienak meategi hauen inguruko herrietan kokatu ziren. Ortuellan, esaterako, bertako biztanleen %72a izatera heldu ziren, eta Trapagan %77a. Hasieran, denboraldi baterako baino ez ziren etortzen, nekazal eremuko lana arintzen zen hilabeteetan bereziki, gero berriz jatorrira bueltatzeko asmoz; nahiz eta, urte gutxiren buruan, finkatuz joango diren. Baina, denborarekin meategien krisiaren ondorioz (bukatzuz baitzihoan mea eta ondorioz, lan-esku eskaera), ibaiaren ezker aldean kokatuz joango dira, burdingintzako fabrika nagusiak zeuden tokian. Barakaldo izango da adibide argiena, 1890. urtean bertako biztanleen %62,1a etorkina izanik²².

Beraz, 1920ra arte olatu ezberdinak egongo dira, eta urte horretatik aurrera nolabait egonkortzera joko du migrazio fluxuak. Etorkinen etorrera ez da hain masiboa izango. Baina 1920-1935 urteen tarte, egonkortze eta finkatze tarte izateaz gain, demografia hazkundearen beste *boom* bat biziko den unea izango da. Eztanda hau berrogeita hamar urtez era masiboan etorritako biztanleria gaztearen ondorioz izango da, hauek ugaltzean populazioa erruz hasiko baita. Azken garai honetan, biztanleria osoarekiko immigranteek suposatzen duten kopurua jaitsi egingo da, aurreko hamarkadetan etorritakoen seme-alabak, jada, natibo bezala hartuko baitira.

²¹ Garcia Abad, R. *Historia de emigración...* op cit.: 160 orr.

²² Garcia Abad, R. *Historia de emigración...* op cit.: 179 orr.

3.3.1. ETORKINEN ADINA

Adinari dagokionez, 20 eta 30 urte artekoen taldea zen ugariena, ehuneko 30 izatera iritsi baitzen. Baina, familian etorri ziren 0 eta 4 urte bitarteko umeak ere asko izan ziren, %14 hain justu. Haur immigrazioa, ezkonduen kopuru handia eta aipatu berri dugun emakumeena, familia immigrazioak zuen garrantziaren adierazle da ezbairik gabe. XIX. mende amaieran, immigranteen batz besteko adina 22 urte zen. Hamarkadek aurrera egin ahala, batz besteko adin hau murriztuz joango da familiarekin etorriko diren haurren kopuruak gora egingo duelako. Horrela, 1920-1935 urteen artean 20 urtean zegoen jada. Batez ere, Bizkaiko bertako beste eskualdeetatik iristen zirenak izan ohi ziren gazteenak, 19 urteko batz bestearekin.

Adin kontuekin amaitzeko, esan behar da, emakumezkoen kopurua handiagoa zela adin zaharreneko jendearen artean eta baita gazteenen artean ere. Hau da, 50 urtetik gora zuten immigranteen artean batez ere emakumeak aurkitzen ditugu, baita 20 urtetik beherakoen artean ere. Gizon gehienak lan fisiko gogorak egitera zetozenez, gehienak 20-35 urte artekoak ziren halabeharrez. Emakumeak aldiz, askotan oso gazte zetozen neskame lanak egitera, edota behin alargundu ostean, seme-alabengana emigratu beharrean ikusten zuten euren burua, zahartzaroa beraiekin igarotzera. Hala ere, 50 urtetik gorakoen kopuru orokorra oso murrizta zen, soilik %5ekoa; nahiz eta 30 urtetik gorakoak, oraindik ere %28a izan.

3.3.2. ETORKINEN EGOERA ZIBILA ETA FAMILIA MOTAK

Etorkinen egoera zibilari dagokionez, ezkongabeen kopurua zen handiena (haurrak ere kontuan hartuz gero), batez ere gizonen artean. Emakumezkoak, oro har, ezkondu eta familian emigratu ohi zuten. Hala ere, ezkonduen ehunekoa ere oso altua izan zen. Ezkontzeko adina zutenak soilik kontuan hartuta, hau da, 20 eta 50 urte bitartekoak, ezkonduetakoak %51a izatera iritsi ziren (emakumeak kasuan %76). Hauen artean, bi familia eredu zeudela konturatuko gara. Izan ere, alde batetik, jaioterritik familian emigratzen zutenak zeuden, eta bestetik, ezkongabetan emigratzen zutenena. Azken hauek jatorrizko biztanleen familietan integratuko dira nagusiki: bertako batekin ezkonduz, familia kateen bidez, familia batentzat neskame arituz eta abar.

Familia hauen tamainari dagokionez, etorkinen familiak 4 senideko batz bestekoa zuten. Hots, bertakoen aldean txikiagoak ziren, Bizkaian ohikoena 6-7 kideko

familiak baitziren. Hau arrazoi praktikoengatik zen horrela, izan ere, bidaia bat abiatzean zenbat eta familia handiagoa izan zailtasun gehiago zituzten, bai bidaiatzeko orduan, bai bizimodua aurrera ateratzerakoan. Etorkinen familiak, oro har, txikiak, sortu berriak eta etorkizunean haziko zirenak izaten ziren, hauek oraindik ugaltzeko adinean baitzeuden. Gehienak, %85,5, familia nuklearrak ziren, nahiz eta %12 familia konplexuagoak izan (aitona-amonak, lehengusuak, osaba-izebak eta abar)²³. Bertakoen familien artean, aldiz, %71 soilik zen familia nuklearra. Ezberdintasun honen zergatia argi dago mugikortasunean datzala.

3.3.3. LAN-EGITURA

Itsasadarreko biztanleen lan-egiturari begiratzen badiogu (immigrante nahiz bertakoak kontuan hartuz), gutxi dibertsifikatutako gizarte baten aurrean gaudela konturatuko gara. 1880-1890 urteen artean, gizonezkoen %64 soldatapeko langileak ziren, %20 nekazariak, %8 artisauak, %2 lanbide liberaletakoak, %3 zerbitzuetan lan egingo dutenak eta %1 zerbitzariak²⁴. Ikusten dugun bezala, soldatapeko langileen multzoa zen handiena, hauek baitziren industrian edota meatzaritzan lan egiten zutenak. Baina, harrigarria dirudien arren, oraindik nekazarien multzoak nahiko handia izaten jarraitzen zuen. Nahiz eta industrializazio prozesu betean egon, oraindik nekazal produkzioan aritzen zen kopuru handi bat mantendu zen, batez ere Erandio, Barakaldo edo Leioa bezalako herrietan. Erandiok, esaterako, itsasadar guztiko nekazarien %38,5a barnebilduko du, eta Barakaldo eta Leioaren artean beste %10 osatuko dute²⁵.

Beraz, soldatapeko langileek eta nekazariak biltzen zuten biztanleen zati handiena. Oraindik gutxi dibertsifikatutako gizarte baten aurrean egongo gara, nahiz eta lanbide berri batzuk hedatzen hasita egon. Artisauak batez ere oihalgintzan eta eraikuntzan aritzen ziren, industrializazioak eta demografia hazkundeak, azpiegituren, etxebizitzaren eta arropen eskaria igo baitzuten. Bestetik, gutxiengo zerbitzu batzuk eskaintzen zituztenak zeuden, hala nola, dendariak, langile publikoak, merkatari txikiak eta abar. Eta, noski, gutxiengo bat izan arren, jabe eta merkatari handiz osatutako elitea.

²³ García Abad, R. *Historia de emigración...* op cit.: 184 orr.

²⁴ García Abad, R. *Historia de emigración...* op cit.: 186 orr.

²⁵ González Portilla, M., R. García, eta K. Zarraga. "La zonificación social de la Ría de Bilbao (1876-1930)." in A. Pareja. *El capital humano en el mundo urbano. Experiencias desde los padrones municipales (1850-1930)* Bilbao: Servicio Editorial UPV-EHU, 2011: 21 orr.

Baina, Ibaizabalgo ertzei begiratu gero, banaketa honen batez bestekoak ez dira berdinak izango alde batean eta bestean. Meatzaldean, adibidez Trapagan, 15 eta 59 urteko gizonezkoen %84ak meatzaritzan egiten zuten lan. Guztiz industrializatutako herrietan berriz, Barakaldon esaterako, %78 industriako langileak izango dira. Portugalete bezala, erdibidean zeudenetan, aldiz %20 inguruk artisautzan egiten zuten lan, edo Erandion bezala %60ak oraindik nekazari izaten jarraitzen zuen. Azkenik, Getxo eta bere ingurua izango dugu. Hauek hasieratik bizileku edo erresidentzia funtzioa hartzen joango dira, eta ildo horretatik, burgesiak eta eliteek eskatuko dituzten zerbitzuetan lan egingo dutenen kopurua askoz handiagoa izango da.

Baina sektoreen arteko banaketa hau aldatuz joango da hamarkadek aurrera egin ahala. Horrela, 1920-1935 epealdian, jada, %84,5 zen soldatapeko langilea. Nekazariak %1era murriztu ziren, eta artisauak %4ra. Lanbide liberalak eta zerbitzuetan lan egiten zutenak apur bat igo ziren, %3 eta %6ra hurrenez hurren. Zerbitzariak %1ean mantendu ziren. Garai honetarako nekazal sektorea ia desagertu egingo da (Erandion, jada, %6 bakarrik zen). Gehiengo handienak industrian egingo du lan jornalari bezala, edo bestela zerbitzuetan (elikadura, dendariak, enplegu publikoak eta abar). Gainera, herri ezberdinen artean homogeneotasun handiago egongo da jada. Erresidentzia edo bizitoki bihurtutako Getxo salbuespen (%25 zerbitzuetan zeuden lanean), beste herri guztietan, %75 inguru izango da fabriketako langile edo jornalari. Gehien Ortuella eta Galdamesenen %94rekin²⁶. XX. mendeko lehen herenerako, beraz, Bilboko itzasadarreko industria espezializazioa egonkortuta zegoen jada.

Hala ere, etorkinek ez dute pisu bera izango sektore bakoitzean. Izan ere, 15 eta 59 urte arteko gizon etorkinen %90ak industrian edo meatzaritzan egingo dute lan. Oro har, soldatapeko langileak izango dira. Hauek izango dira, era berean, artisau ofizioak eta lanbide liberalak bete zituztenen %91. Datuen irakurketa hau egitean ordea, kontuan izan behar da etorkinek lan egiteko adinean zeuden guztien artean zuten pisua oso handia zela, hauek osatzen baitzuten 15 eta 59 urte arteko biztanle guztien %74²⁷. Hala ere, nekazal jardueran kasuan, egoera bestelakoa zen, lan hauek ia osotasunean bertakoek egiten baitzituzten. Beraz, argi ikusten da, etorkinak izan zirela industrializazio prozesuak sortu zituen lanpostu berriak bete zituztenak²⁸.

²⁶ Garcia Abad, R. *Historia de emigración...* op cit.: 202 orr.

²⁷ Garcia Abad, R. *Historia de emigración...* op cit.: 189 orr.

²⁸ González Portilla, M., R. García, eta K. Zarraga. "La zonificación social..." op cit.: 23-25 orr.

Industrializazio prozesuarekin sortutako lan-merkatu berri honek ez zuen langile kualifikatu askorik eskatuko, batez ere, meatzaritzan kontzentratuko den lehen aldian. Kualifikazio falta honek erraztu egin zuen immigranteak lan munduan txertatzea. Industria zehatzak garatu ahala, ordea, sektorea jakin bakoitzean nolabaiteko aurre-esperientzia izatea kontuan hartzen hasi ziren. Beharrezkoa bihurtu zen langile espezializatu kopuru jakin bat izatea lantegi bakoitzean, nahiz eta langile gehienak ez izan. Horregatik, industria esperientzia izandako langileen etorrera igo egin zen, eta manufakturretan edo protoindustrian tradizioa izandako eskualdeetakoak hasi ziren agertzen.

Jatorria garrantzitsua bihurtu zen lanpostu jakin bat edo beste bat eskuratzeko orduan. Sektore bakoitzean zonalde ezberdin batetik etorritakoak gailendu baitziren. Horrela, Bizkaikoak ez ziren langileek, oro har, industrietako soldatapeko lanpostuak hartu zituzten. Horien artean, gehien burgostarrek (%87), eta arabarrek (%79). Bizkaiko beste eskualdeetatik etorritakoek, berriz, nekazal jardueretan parte hartze handiago izan zuten (%25,7), eta Gipuzkoakoek artisautzan (%30), probintziako bertako garapenak langile kualifikatu gehiago sortu baitzituen.

Emakumeen kasuan zailtasunak daude izan zuten lanpostuak aztertzerako orduan. Izan ere, kontserbatzen diren garaiko datuetan oso gutxitan adierazten da emakumeek zein lanbide zeukaten. Gehiengo handi bat “etxeko andre” bezala kalifikatuta ageri da (%80) eta gutxiengo bat neskame moduan (%7). Zaila dirudi sinestea emakumeen artean hain kopuru handiak etxetik kanpo inolako lanik ez egitea. Nahiz eta egia izan industrializazioak emakumeak lan-mundutik baztertu zituela²⁹, badakigu familiek bizirauteko gehienetan ez zutela aski izaten gizonaren soldatarekin bakarrik. Horrela, pentsa dezakegu emakume askok arautu gabeko lanak egingo zituztela, etxekoen zaintza lanez gain.

Egia da halaber, industrializazioaren fenomenoak lan-mundua aldatu eta joko arau berriak ekarri zituela. Meatzaritzaren eta burdingintza industriaren ezaugarriek lanaren sexu banaketa ezarri zuten. Lan antolaketa berriak, esan bezala, emakumea lan-mundutik kanporatu egin zuen, lan espazioa eta etxea banatzearekin batera. Etxeko lanak eta soldatapeko lanak uztartzea zaila bihurtu zen. Industriak lan egiteko etxetik atera beharra ekarri zuen, eta ordutik aurrera familia ez zen jada produkzio unitatea

²⁹ Gonzalez Portilla, M. (Ed.). *Bilbao en la formación...* op cit.: 33 orr.

izango. Gizonaren papera kanpoan lan egin eta etxera soldata ekartzea izango zen, eta emakumearena etxeko andrea izatea. Adibidez, 1857. urtean, oraindik industrializazio prozesua hasi berria zenean, Barakaldoko emakumeen %70ak zeukan etxeko lanez gain lanbide bat; baina, 1900. urterako, jada, kopuru hori %10era murriztu zen³⁰.

Hala ere, azpimarratzekoa da immigranteen artean emakumeek osatzen zuten kopuru handia. Izan ere, 1880-1890 epealdian ezarritako etorkinen %44 emakumezkoak ziren, eta 1920-1935 epealdian ere %48 izango dira. Emakumea soldatapeko lan mundutik baztertua izan zen arren, familian ondasun eta zerbitzuen produkzioan funtsezko papera izaten jarraitu zuen, ostalaritzan, neskame bezala, edota erizain, jostun edo garbitzaile lanetan arituz.

3.3.4. ETORKINEN HEZKUNTZA ETA ALFABETATZEA

Etorkinen ezaugarrien azterketarekin bukatzeko, alfabetatze mailari begiratuko diogu. Izatez, badirudi irakurtzen eta idazten zekien batek erraztasun handiagoak izango zituela emigratzeko. Izan ere, alfabetatua izateak hainbat abantaila dakartza etorkin baten jardunean: familiarekin edo aurretik emigratu duten ezagunekin eskutitzak trukatzeko aukera, lan-merkatuan txertatzeko erraztasuna, postu kualifikatuagoak lortu ahal izatea eta abar.

1880-1890. urteen arteko populazioa kontuan hartzen badugu, alfabetatu eta alfabetatu gabekoen kopuru berdintsuak ditugu Bilboko itsasadarrean. Emakumeek maila apalagoa izan zuten, alfabetatu gabeak %67 baitziren, gizonen artean %37 ziren bitartean. Izan ere, emakumeek hezkuntza sisteman sartzeko zailtasun handiagoak izan zituzten betidanik. 1920-1935 epealdian, analfabeto kopurua %15era jaitsi zen; eta emakumeen kasuan datua oraindik harrigarriagoa da, %80 alfabetatua izango baita dagoeneko. Espainiako alfabetatze maila Europako herrialde aurreratuenetan baina nahiko baxuagoa izan arren, 1887-1930 urteen artean garapen izugarria jasan zuen, eta aipatu berri ditugun datuek erakutsi bezala, hori nabaritu egingo da gure kasuan ere.

Bestetik, etorkinen artean, bertakoen artean baino alfabetatze maila handiagoa zegoen (%10 gehiago), batez ere gizonezkoek dagokienez. Estatu barruan maila altuena zuten zonaldeak Burgos, Katalunia, Asturias, Kantabria eta Euskal Herria ziren, Bizkaira etorriko diren etorkin gehienek jaioterriak hain zuzen. Kontuan izan behar

³⁰ Garcia Abad, R. *Historia de emigración...* op cit.: 192 orr.

dugu, emigratzen zutenak ez zirela euren jaioterrietako txiro eta ezjakinenak izaten. Hain zuzen, bidaiatzeko eta lan-munduan sartzeko gutxiengo jakintza maila bat, eta bidaiatzeko nahiz lehen asteak igarotzeko aurrezki batzuk izan behar baitziren. Baina kolektibo alfabetatuen, %92ko alfabetatze mailarekin, Espainia kanpotik etorri ziren atzerritarrak izan ziren. Gehienak Frantzia eta Ingalaterratik etorri ziren langile kualifikatuak ziren, industrietan tekniko bezala lan egitera etorritakoak. Hala ere, immigrazio osoaren gutxiengo bat baino ez ziren izan kolektibo honetakoak.

3.4. ETORKINEN JOMUGA NAGUSIAK

Etorkinek euren jomuga aukeratzeko orduan bi faktore izan ohi dituzte kontuan. Lehenengoa, jomuga izan daitezkeen gune horietako merkatu egitura izaten da. Hau da, jendeak lan eskaria zabala dagoen zonaldeetara emigratu ohi du, eta batez ere, euren ezaugarriekin (lan formazioa, hizkuntza, kultura eta abar) bat egiten duten lanpostuak dauden lekuetara. Erreparatu ohi den bigarren faktorea migrazio sareak dira. Hau da, norbere senide, lagun edo herrikideren batek emigratu eta esperientzia positiboa izan ohi duten lekuak lehenesten dira oro har.

Bi faktore hauei erreparatuta, ikusi dugun moduan, XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran, Bilboko itsasadarrak baldintza egokiak betetzen zituen inguruko eskualde eta probintzietatik emigratzeko. Baina itsas adarrak osotasun bat eratu arren, bere barnean errealitate geografiko, ekonomiko eta demografiko ezberdinak egon ziren. Hots, bost zonalde garrantzitsutan banatu dezakegu itsasadarra. Zonalde bakoitzak izango dituen baldintzen arabera immigrante kopuru eta mota ezberdinak jasoko ditu migrazio mugimenduen olatu bakoitzean.

Lehen zonaldea Meatzaldea (Abanto-Zierbena, Galdames, Ortuella eta Trapaga) dugu. Lehen olatuan (1877-1890) etorkin gehienak gune honetara etorri ziren, meatzeetan lan-esku eskari izugarria baitzegoen. 1880-1890 urteen artean, zonalde honetan immigranteen kopurua populazio osoaren %63,6 ziren³¹. Meatzeetako lanak baldintzatu zituen gune honetara etorriko diren immigranteen nolakotasuna, gehienek (15 eta 59 urte artekoen %85) meatzaritzan egingo baitute lan. Horregatik, nagusiki gizonezkoak (%60), gazteak (20 eta 30 urte artekoak), hein handi batean familia gabe

³¹ Garcia Abad, R. *Historia de emigración...* op cit.: 211 orr.

etorritakoak (%40), eta lan formazio txikikoak ziren. Gehienak Bizkaia bertatik edo hurbilenero probintzietatik heldu ziren.

Zonalde honetako berezitasun bat behin-behinekotasuna izan zen. Izan ere, ohikoa izan zen jatorriko nekazal guneko lana eta meatzeetako lana uztartzea. Uzta bildu behar zenean jaioterrira bueltatuz. Behin-behinekotasun honengatik etorkinen %58,5 apopilo bezala ezartzen ziren familia edo ostaturen batean. Hauez gain, beste asko enpresek meatze inguruetan eraikitako barrakoietan ere bizi ziren. Baina 1900. urtetik aurrera, meatzeak agortzen hasi ziren eta krisian sartu zen meatzaritza. Urte horretatik aurrera zonalde honetako herrien hazkundera gelditu egingo da.

Bigarren zonalde itsasadarraren erdialdeko gunea (Barakaldo, Sestao, Leioa eta Erandio) izan zen. Aurreko ataletan ikusi bezala, meatzaritzaren garapenak burdingintza enpresen eta ontziola handien sorrera ekarri zuen, eta bertan hasi ziren etorkinak ezartzen 1880etik aurrera batez ere. Industria garapen honen ondorioz, zonalde honetan etorkinen etorrerak aseko zuen lan eskaintza handia sortu zen. 1877 eta 1900. urteen artean gune honetako populazioa %336 egin zuen gora, bai immigranteen etorrera masiboagatik eta baita hauek gerora eragingo zuten jaiotzen eztaudagatik ere.

Baina lehen zonaldearen aldean, beste immigrazio mota bat izango da oraingoa. Zonalde honetara mugituko direnek familian osoarekin egingo dute gehienetan (%66), eta emakumeen presentzia nabariagoa izango da (%50 inguru)³². Nahiz eta aipatu berri ditugun lantegietan egingo duten lan erdiek baino gehiagok (%68), meatzaritza gunearen aldean, zonalde honetan lan dibertsifikazio handiagoa egongo da, nolabait, nekazal produkzioak (%16) eta artisautzak (%8) iraun egingo baitute. Kasu honetan, gainera, hasieran batez ere Bizkaiko immigrazioa izango dugu (%44). Hurbiltasunaz gain, Bizkaian lehenagotik burdingintzan nolabaiteko tradizioa izanik langile kualifikatuak bertan zeudelako. Behin kualifikazioa eta espezializazio eskatzen zuten lanpostuak beteta, lan-indar masiboaren beharra urrunagoko probintzietako etorkinek aseko dute.

Hirugarren zonaldea ibaiaren bokalean kokaturik dauden herriek (Portugalete, Santurtzi eta Getxo) osatuko dute. Hasieren, ibai ahoko herri hauek industria, zerbitzuak eta merkataritza uztartuko dituzte; nahiz eta, hamarkadek aurrera egin ahala emeki itsasadar osoan industria eredu bera nagusituz joango den. Adibidez, Santurtzik itsas

³² Gonzalez Portilla, M. (Ed.). *Los orígenes...* op cit.: 147 orr.

tradizio handia zuen, eta Getxo eliteen eta burgesia berriaren bizitoki, eta udatarren hiri bihurtuko da, zerbitzuen sektorearen hazkunde handiarekin. Heterogeneotasun honek jasoko duten etorkinen nolakotasunean ere eragina izango du, eta horrela perfil ezberdineko jendea helduko da.

Portugaletetik, erdialdeko gune industrialetik hurbilen egonik, lehenengo jasako ditu etorkinak; eta Getxo eta Santurtzik beranduago. Horrela, Portugaleten 1884rako jada, populazio osoaren %68 osatuko dute kanpotarrek, eta Getxon, esaterako, %36 bakarrik³³. Zonalde honen berezitasun hauek direla eta, etorkinen %56 emakumeak izango dira (neskame lanak egitera zetozen gehienak), hauetatik gehienak, gainera, familiarik gabe etorriak.

Laugarren zonaldea itsasadarraren amaieran kokaturik dagoen Basauri eta bere inguruek osatuko dute. Zonalde honen garapen industrial eta demografikoa bestena baino beranduago gauzatu zen. Batez ere 1900. urtetik aurrera hasiko dira heltzen immigranteak. Izan ere, 1880-1890. urteen artean soilik biztanleria osoaren %30 zen etorkina, eta gainera, hauetatik %86 bizkaitarrak ziren. Zonalde honetan ere emakumeak etorriko dira gizonak baino gehiago, baina kasu honetan familia osoarekin etorriko direnak nagusituko direlarik (%77)³⁴. 1910. urtetik aurrera garrantzia irabazten joango da zonalde hau, eta orduan gizonezkoen kopuruak igo egingo dira, batez ere Burgos eta Arabatik etorriko direlarik.

Azkenik, bosgarren zonaldea Bilbo hiriburua izango da. Bizkaiko hiriburua 1876-1930. urteen artean hiri handi bihurtu zen, Espainiako bosgarrena biztanleei zegokionez (95.000 inguru). Baina baita estatuko iparraldeko finantzen eta ekonomiaren hiriburu ere. Izugarritzko hazkunde demografikoa izango du, zonalde osoko hazkunde demografikoaren %48,5 bereganatuko du, hazkunde naturalaren %57,9, eta immigrazioaren %46,3³⁵; eta horri anexionatuko dituen aldameneko herri txikiak (Abanto, Begoña eta Deustu) gehitu behar zaizkio. Azken batean, aurreko lau zonaldeek osatzen duten itsasadarraren jarduera ekonomikoaren erdigunea bihurtuko da³⁶. Nolabait esateko, zonaldearen bihotza, industrializazio prozesua zuzenduko duen erdigune

³³ Gonzalez Portilla, M. (Ed.). *Los orígenes...* op cit.: 144-146 orr.

³⁴ Gonzalez Portilla, M. (Ed.). *Los orígenes...* op cit.: 148-150 orr.

³⁵ Gonzalez Portilla, M. (Ed.). *Los orígenes...* op cit.: 231 orr.

³⁶ Gonzalez Portilla, M. (Ed.). *Los orígenes...* op cit.: 150-155 orr.

hegemonikoa. Halaber, industria eta zerbitzuak uztartuko dituen hiri mistoa bihurtuko da³⁷.

4. GIZARTE ALDAKETAK

Aurreko ataletan ikusi dugun moduan industrializazioa fenomeno ekonomikoa izan arren gizartean eragina izan zuen hasieratik. Industriaren hedapenak eragin nabarmena izan zuen jendearen kulturaren, gizartearen egituraren nahiz eguneroko bizimoduan. Aurreko ataletan batez ere demografia hazkunde azkarrean, immigrazioan eta lan-egituraren aldaketan zentratu gara. Baina, esan bezala, industrializazioak ez zuen soilik arlo hauetan eragin, beste hainbat esparrutan ere aldaketak ekarri baitzituen: biztanleriaren bizi mailan, aberastasunaren banaketan, klaseen eraketan, kultura eraldaketan (hiri bizimodua, familia mota, erlijioa, langile identitatea) eta abar. Hurrengo lerroetan hauetako arlo batzuetan izandako aldaketa nagusiak azalduko ditugu.

Industrializazioak eguneroko bizi baldintzak errotik aldatu zituen. Industria ezarri ahala, hasieran, bizi kalitateak behera egin zuen eta horren ondorioz bizi itxaropena jaitsi egin zen heriotza tasa igoz. Burgesen edo nekazarien aldean, fabrika eta meategietako langileek sufritzen zituzten heriotza tasa altuenak, eta hauen seme-alabek haur hilkortasun altuena. Izan ere, industrializazioarekin heriotza tasak gora egin zuen 1930. urtera arte, eta aldi horretan, Bizkaian XVIII. mendetik zetorren bizi itxaropenaren hobetzearekin hautsi zen. 1858-1862 arteko epealdian mila biztanleko urtean 22 hiltzen baziren, 1886-1892 epealdirako, jada, itsasadarreko industria eta meategi guneetan 45-50 artean hiltzen ziren³⁸.

Hainbat arrazoi zeuden honen atzean, hala nola, etxebizitzetan pilatuta bizitzeak zekarren higie faltak eta gaixoak kutsatzeko arriskua, elikadura eskasia, lantegietako lan baldintza gogorrak eta abar. XIX. mende bukaeran langile familia batek ez zuen egunero bizirauteko behar zuen adina elikagai erosteko aukerarik. Etxebizitzaren egoera ere jasanezina zen, pilaketa, txirotasun eta higie faltak handiak baitzen. Langileak auzo zehatzetan pilatu zituzten, burgesen auzo aberatsetatik aldentuta. Meatze guneetan,

³⁷ González Portilla, M., R. García, eta K. Zarraga. "La zonificación social... op cit.: 16 orr.

³⁸ Barcenilla, M. A. *Industrializazioa...* op cit.: 167 orr.

gainera, langileak enpresen jarritako barrakoietan bizi behar zuten, sarri ohea bera ere bi edo hiru langileren artean txandaka banatu behar zutelarik.

Lantegietako lan baldintzak penagarriak ziren. Lan erritmo azkarrak, diziplinak eta nagusiek langileak edozein unetan kaleratzeko ahalmenak hauen gaineko presioa areagotu baitzuen. Lanaren mekanizazioaren ondorioz, gainera, langilea makinaren erritmora lan egitera behartua zegoen. Lan orduak, sarri 12 ordukoak izaten ziren. Gainera, lantegietan ere higie baldintza penagarriak zeuden. Soldatak urriak ziren, ezinezkoa zen dirurik aurrezte eta edozein ezbeharren aurrean (gaixotasuna, langabezia eta abar) familia txirotasunera kondenatua zegoen, ez baitzegoen ezelako gizarte segurantzarik. Familia egitura aldatu izanak (familia nuklearra), halaber, familia elkartasuna mugatu zuen.

Izan ere, proletarizazioak soldataren mende utzi zituen gune industrial berriko biztanle gehienak. Nekazari edo artisauen kasuan ez bezala, jada, hauek ez baitziren inolako lan bitartekoen jabe. Gizarte egitura berri honek aberatsen eta txiroen arteko aldea handitu egin zen. Gizartea bi klase nagusitan banatuta gelditu zen, alde batetik produkzio bitartekoen jabe ziren kapitalistak zeuden, eta bestetik, euren lan indarra besterik ez zeukaten langileak.

Produkzio bitartekoen jabeek ezartzen zituzten soldatak, eta sarri lan-sari hauek ez ziren langileak euren burua eta familia bizirik mantentzeko heltzen. XX. mende hasieran langile familia batek 950 pezeta behar bazituen bizitzeko (etxebizitza, janari eta arropak)³⁹, jornalari baten soldata ez zen inolaz ere kopuru horretara heltzen. Beraz, beharrezkoa zen familiaren biziraupena bermatzeko haurrek edo emazteak etxetik kanpo lan egitea. Oro har, oso baldintza prekarioetan. Noski, langile kualifikatuek, lantegi arduradun eta bestek soldata hobeak zituzten.

Hala ere, hasierako aldi gogor hau igaro ondoren, XX. mendearen bigarren hamarkadatik aurrera egoera hobetuz joan zen. Langile familien elikadura hobetu egin zen, eta hirien garbitasuna, argiztapena, ur hornidura edo estolderia orokortzen hasi ziren. Lan orduak pixkanaka murriztuz joan ziren, 1890. urtean 10 edo 11 ordura, eta 1919an 8 orduko lan eguna ezarri zen legez⁴⁰. Langileen erakundeen sorrerak eta hauen mobilizazioak behartu zituzten horretara, eta, hain zuzen, lehen langile gatazkak izango

³⁹ Barcenilla, M. A. *Industrializazioa...* op cit.: 187 orr.

⁴⁰ Barcenilla, M. A. *Industrializazioa...* op cit.: 191 orr.

ditugu XIX. mende amaieran. Alta, langileen soldata igo egin zen, are elikagai arrunten prezioa baino gehiago. 1890tik aurrera langabezia edo gaixo egonez gero lanbide elkarteek, erlijio taldeek, enpresek eta bestelako elkarte politikoek laguntza mediko eta diru sari zati bat bermatuko zuten⁴¹.

Amaitzeko, azpimarratzekoa da, aztergai dugun Bilboko itsasadarrean industrializazioak izandako eragin linguistiko eta kulturala ere. Nahiz eta XIX. menderako itsasadarrearen mendebaldeko herrietan ez zen euskara erabiltzen, ekialdeko herrietan (Leioa, Getxo, Erandio) bizi-bizi zegoen euskara, eta hiriburuan bertan ere erruz entzuten zen. Industrializazioak ekarritako etorkin erdaldun kopuru handiaren ondorioz, eta garai hartan, ohikoa zen legez, etorrera horren ondorio linguistikoak aurreikusteko eta erantzun egokia emateko aurreikuspenik eta planik ez zegoenez, euskarak atzerakada handia izan zuen, baserri gune batzuetan izan ezik, ia zonalde guztian desagertzeraino.⁴²

5. ONDORIOAK

Ikusi dugun moduan, XIX. mendeko azken bi hamarkadetan industria gune boteretsua finkatu zen Bilboko itsasadarrean. Bizkaia gehienak nekazaritzan eta arrantzan oinarritutako ekonomia izaten jarraitu zuen arren, Bilboko itsasadarrean XX. mendearen lehengo hamarkadarako industriak nekazaritzak baino barne produktuaren ehuneko handiago suposatu zuen. Nerbioi eskualdeak biltzen zituen baliabide eta aukera ezin egokiagoak izan ziren industrializazioa bertan gertatzearen arrazoiak. Hasieran mearen ustiapenari lotutako industria sortu zen, gero burdingintza industria, eta azkenik, besteak beste, honen inguruan eratutako metalgintza eta ontzigintza.

Arestian aipatu bezala, eskualdeak liberalizatutako burdin meategi aberatsak zituen, eta hauetan erauzteko erraza izateaz gain, Bessemer izeneko altzairu bihurgailurako egokia zen minerala. Ingalaterratik ikatza merke lortzeko aukera ere bazegoen, nazioarteko merkatuari begira produzitzeak sareak eraikitzea ekarri baitzuen. Faktore horiez gain, kostaldetik eta Bilbotik oso gertu kokatuta zegoen, eta trenbide sarea eta azpiegiturekin lotuta. Beste batzuen artean, faktore hauek meatzaritza industria

⁴¹ Castells, L. “Los trabajadores en el País Vasco (1880-1914)”, *Historia contemporánea*, 3, (1990): 61-63 orr.

⁴² Anaut, D. *Euskararen kate hautsiak. Hizkuntza zapalkuntzaren memoria*. Bilbo: Euskal Memoria Fudazioa, 2013:79-85 orr.

garatzea ekarri zuten, eta honek era berean burdingintza kokatzeko esparru ezin hobe bilakatu zuen zonalde hori. Ondorioz, milaka langile beharko dituzten enpresa eta lantegi handiak sortu eta ezarri ziren, bertako gizartean sekulako aldaketak suposatuz. Prozesu honekin, itsasadarra estatu mailan demografikoki eta ekonomikoki dinamikoenetakoa izango den guneetako bat bihurtuko da. Kantauri aldeko metropoli gune nagusia izango da, eta euskal probintziez gain, Asturias, Errioxa, eta Gaztela iparraldearen erreferentzia gunea bihurtu zen.

Azken atalean ikusi dugun moduan, industrializazio prozesu honek ordura arte lehen sektorean oinarritutako gizarte tradizional honetan aldaketa handiak ekarri zituen: lan-egituraren aldaketa, populazioaren hazkundera, immigrazioa, hiritartzea, proletarizazioa, bizi baldintzen aldaketa eta abar. Hain zuzen, gertatu zen industrializazioa fenomeno konplexua izan zen, eta ezin da ekonomia soilaren muge barruan ulertu. Industrializazio prozesu guztiak gizarte prozesu ere badira, eragin ukalezina sortzen baitute gizarte egitura hainbat aldaketa sortuz. Gure kasuan, gizarte berri bat sortuko da, Bizkaiko gizarte tradizional, nekazari, kontserbadore, elizkoi eta euskaldunarekin hautsiko duena.

Hala ere, lan honetan prozesu horrek ekarritako ondorio batean zentratu gara, demografia hazkundera eta, batez ere, immigrazioan. Itsasadar ingurua, 1857. urtean, Bizkaiko populazioaren heren bat besterik ez bazen ere, 1900. urtean populazioaren erdia baino gehiago izatera iritsi baitzen, hazkunde izugarriarekin. Herri txikiak hirigune bihurtu ziren. Eta ikusi dugun moduan, hain azkar gertatutako demografia hazkundera immigranteak milaka iristearen ondorioa izan zen. Fenomeno honek suposatu baitzuen demografia hazkunderaren %70. XIX. mende bukaerarako itsasadarreko erdiak kanpotarrak ziren. Industrializazioak landa inguruneetatik hiri inguruetara bultzatu zituen herritarren mugimenduak, baita landa inguruneak hirietatik oso urruti bazeuden ere. Beste euskal probintziez gain, penintsulako hainbat lurraldetan ere Bizkaiko industria guneen eragina jasan baitzuten. Etorrin hauek ase zuten industria berriaren lan-eskua, eta ezinezkoa da XX. mendeko Bizkaiko gizartea ulertzea faktore hau kontuan izan gabe.

Laburbilduz, esan behar dugu, immigranteen etorrera izan zela itsasadarraren demografian eragin zuen gertakari nagusia. Etorrinen kopuruak bertakoena gainditu zuen eta gainera, hein handi batean, etorritako gehienak 20-35 urte bitarteko gazteak

izanik (gizonezkoen sasoi produktibo onena eta emakumeen sasoi erreproduktibo onena) *boom* demografikoaren erantzulea izan ziren gerora. Etorkin hauek ase zituzten industriak sortutako lanpostu berriak. Lehenengo meategien ustiategi masiboan, eta gero Ezkerraldeko burdingintza enpresetan batez ere. Hain zuzen, bi arrazoi hauek, hots, demografian izandako inpaktua eta produkzio prozesuan izandako papera dira etorkinen ezaugarriak aztertzea garrantzitsu egiten duten zioak.

Laburbilduz, etorkinen ezaugarriak aztertuz honako ondorioak atera ditugu. Lehenik eta behin, immigranteen etorrera olatu ezberdinetan burutu zela. Ikusi bezala, olatu hauek ziklo ekonomikoekin eta lan-eskuaren eskariarekin estuki lotuta egon ziren. Etorkinek garapenaren eta lan merkatuaren arabera aukeratu zituzten jomugako herriak. Lehendabizi mehatzen inguruko herriak, gero ezkerraldeko gunee industrialak eta ondoren gainerako zonaldeak. Etorritako %70 inguruko probintzietatik (Araba, Burgos, Gipuzkoa eta Kantabria) edo Bizkaitik bertatik heldu ziren. 1850etik aurrera bizkaitarrak batez ere, gero gipuzkoarrak eta 1870-1875etik aurrera gainerako probintzietakoak. Denborarekin urrutiragoko probintzietako fluxuak hasi ziren gehitzen.

Bigarrenik, immigranteen artean emakumeek suposatu zuten kopurua handia izan zela azpimarratu behar da. Nahiz eta ezarri zen merkatua gizonezkoek bideratua egon eta emakumea lan-mundutik baztertu, emakume asko heldu ziren itsasadarrera estrategia ezberdinak erabiliz. Askok familian emigratu zuten, gizonak industrian lan egiten zuen bitartean hurrez eta etxeko lanez arduratzeko, edo aldi bateko lanak burutzuz soldata osagarri bat lortzeko. Izan ere, ikusi dugu familia emigrazioa handia izan zela. Familia gazte hauek izango dira demografia ez-tandaren oinarria. Beste emakume askok, berriz, neska lanak egiteko asmoz jo zuten, batez ere zerbitzuetan espezializatu ziren Getxo eta beste erresidentzia lekuetara.

Azpimarratu beharreko hirugarren ondorioa emigratzeko orduan etorkinen familia eredu nagusia familia txiki eta murrizta izan zela da. Hau da, emigratu zuten familien kide kopurua oso txikia zen, bikotea bera bakarrik, edo asko jota pare bat ume txikirekin. Gero, jomugan finkatu ostean, familiaren tamaina handitu egiten zen. Batetik, egonkortasunak seme-alaba gehiago ekartzea ahalbidetzen zuelako, eta bestetik, herrikideak, senideak edo apopiloak hartu ohi zituztelako emigrazio sareen ondorioz. Beraz, hasieran familia egiturak sinpleak baziren ere, finkatu ostean konplexuago bihurtzen ziren. Izan ere, familiarik gabe emigratu zutenen artean bi estrategia nagusi

egon ziren. Gizonen kasuan apopilo edo senide bezala ezartzea familiaren batean, eta emakumeen kasuan neskame bezala txertatzea familiaren batean.

Nabarmendu beharreko laugarren ondorioa migrazio prozesuak irauten duen mende erdian etorkinen formazio mailan izandako bilakaera da. XIX. mende amaieran iritsitako etorkinak itsasadarrekoak baino alfabetatze maila altuagoak zituzten, baina mende aldaketarekin gizonen artean alfabetatzearen orokortzea gertatuko da, bi kolektiboen aldea desagertuz. Horrela, ordura arte etorkinek formazioari dagokionez izandako abantaila galduko dute.

Azkenik, lan egituraren garapena aipatu behar da. Ikusi dugu, nahiz eta hasieran ere dibertsifikazioa txikia izan, XX. mendearen hasierarako jada homogeneousuna ia erabatekoa izango dela. Industriak hartuko du nagusigoa, gizonezko gehienak soldatapeko langileak izango direlarik. Esan bezala, industriak sortutako lan-postu hauek immigranteek aseko dute hein handi batean. Bestelako sektoreetan arituko den populazioa oso txikia izango da, oinarritzko beharrianak asetzeko beharrezkoa baino ez. Emakumea, berriz, lan merkatu industrial berritik kanporatua izango da. Baina nahiz eta eremu pribatura mugatuta geratu, paper garrantzitsua bete zuen ondasun eta zerbitzuen produkzioan, etxeko lanen bidez, ostalaritzan arituz edo aldi bateko lanaldien bidez.

6. BIBLIOGRAFIA

- Anaut, D. *Euskararen kate hautsiak. Hizkuntza zapalkuntzaren memoria*. Bilbo: Euskal Memoria Fudazioa, 2013.
- Barcenilla, M. A. *Industrializazioa Euskal Herrian*. Donostia: Gaiak, 2002.
- Castells, L. "Los trabajadores en el País Vasco (1880-1914)", *Historia contemporánea*, 3, (1990), 59-74 orr.
- Castells, L. *El rumor de lo cotidiano: estudios sobre el País Vasco contemporáneo*. Leioa: EHU-UPV, 1999.
- Diaz, P. "La evolución de la oligarquía vizcaína, 1872-1936", *Ekonomiaz: revista vasca de economía*, 54 (2003), 12-27 orr.
- García Abad, R. *Historia de emigración: factores de expulsión y selección de capital humano en la emigración a la Ría de Bilbao (1877-1935)*. Bilbao: EHU-UPV, 2005.
- Gonzalez Portilla, M. (Ed.). *Bilbao en la formación del País Vasco Contemporáneo: economía, población y ciudad*. Bilbao: Fundación BBV, 1995.
- Gonzalez Portilla, M. (Ed.). *Los orígenes de una metrópoli industrial: la ría de Bilbao. Volumen I. Modernización y mestizaje de la ciudad industrial*. Bilbao: Fundación BBVA, 2001.
- González Portilla, M., R. García, eta K. Zarraga. "La zonificación social de la Ría de Bilbao (1876-1930)." in A. Pareja. *El capital humano en el mundo urbano. Experiencias desde los padrones municipales (1850-1930)* Bilbao: Servicio Editorial UPV-EHU, 2011, 15-43 orr.
- Uriarte, R. "Gestión y cambio técnico en una empresa siderúrgica tradicional: la ferrería El Pobal (XVI-XX)", *RIEV*, 54.2, (2009), 411-463 orr.
- Valdaliso, J. M. "Nacimiento y desarrollo de la industria de construcción de buques de hierro y acero en el País Vasco: el caso de Vizcaya (1889-1979)" *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 2, (1998), 307-325 orr.